

Ante la presentación de Langile Autodefentsa Sarea Bilbo de Kontseilu Sozialista.

BILBOKO LANGILE AUTODEFENTSA SAREA :: 14/02/2022

Han utilizado el mismo nombre para crear su nuevo colectivo, entendemos que para poder eliminar el trabajo y la referencialidad de lo que no han podido absorber

[Euskara]

Kontseilu Sozialistaren Langile Autodefentsa Sarea Bilboren aurkezpenaren aurrean.

Bilboko Langile Autodefentsa Sarearen (LAS) lana 2019an hasi zen, langile klasearen auto-antolaketa sustatzeko asmoz. Gure helburua langile klasearen mugimendu eta antolaketa eraginkor baten sorrerari ekarpena egitea da. Gure jarduera praktikoa zehatza soldatapeko lanean zentratuta dago, horrela erakunde burgesen eta sistema kapitalistaren aurrean antagonismoa eta benetako klase-batasuna garatzen saiatuz.

Langileek beren borroka gidatzen dituzten antolakundea gara, esplotazioaren aurrean erantzuna kolektibizatuz eta lortutako garaipenak klase osoarenak izan daitezen eraginez. Gure ibilbidea hasi genuenetik, hainbat lan-gatazka izan ditugu, eta garaipen esanguratsuak lortu ditugu. Gure lanarekin, gero eta erreferentzialtasun handiagoa lortu dugu, eta hasieratik jaso dugun inplikazioak eta elkartasunak gure jarduera aberastu dute.

Euskal Herriko egungo egoera politiko korapilatsuaren erdian, non desmobilizazioa eta antolamenduaren atomizazioa orokorra den, LASen esperientziak erakutsi du pentsaera politiko desberdinak dituzten langileen arteko antolaketa posiblea eta beharrezkoa dela, betiere oinarri iraultzaile batetik bada. Hala ere, adierazi behar da akordioa eta oreka ez direla inoiz errazak izan.

Azken hilabeteetan, taldearen estrategia bistaratzeko orduan ezberdintasunak zeudela ikusirik, planteamendu estrategikoari buruz eztabaidatzea erabaki zen. Eztabaidetan hainbat proposamen eta planteamendu aurkeztu ziren, besteak beste Kontseilu Sozialistan sartzea. Batzarrak proposamena baztertzea erabaki zuen (etorkizunean egon daitezkeen lankidetzeari ateak itxi gabe, bere jardunean hainbat kolektibo eta talderekin egin duen bezalaxe), LASen lana eta helburuak garatzen jarraitu ahal izateko. Erabaki hori hartu ondoren, Kontseilu Sozialistako kideek Langile Autodefentsa Sarea uztea erabaki zuten, langile autodefentsa sare berri bat sortzeko asmoa zutela helaraziz.

Hilabeteak daramatzagu iaz hasitako errepresioak eragindako blokeo politikoaren erdian. Espainiako poliziak gure zazpi kide eta kide ohi atxilotu zituen. Oraingoan, horietako bakoitzak 2 urte eta 9 hilabeteko espetxe-zigor eskaera du, eta guztira 82.000 euroko isuna. Auzipetuen artean gatazka aurrera eraman zuen langilea aurkitzen da, emakume migratua izanik, errepresioaren ondorioak larriagoak bilakatuz.

Eragozpen hauen guztien erdian, eta ondorioz, haietaz baliatuz, Bilboko Kontseilu Sozialistak bere langile autodefentsarako sare berria aurkeztu zuen joan den astean; Langile Autodefentsa Sarea Bilbo. Izen berdina erabili dute beren kolektibo berria sortzeko; gure ustez, xurgatu ezin izan duten lana eta erreferentzialtasuna ezabatu ahal izateko, eta horrek gure praktika politikoan eta defentsa juridikoan dakartzan ondorio larriak alde batera utziz.

Komunikatu honen helburua hausturaren berri ematea eta Kontseilu Sozialistaren Langile Autodefentsa Sarea Bilboren jatorria eta horrek dakartzan ondorioak argitzea da. Ez dugu eztabaidetan sartu nahi, mesfidantzak eta lehiak baino ez baitituzte ekartzen, eta ez baitute laguntzen goian aipatutako helburu politikoak garatzen.

Argi utzi nahi dugu Langile Autodefentsa Sareak bere lan politikoa egiten jarraitzen duela eta jarraituko duela, langile klasearen borroka antolatzeke helburuari eutsiz. Gainera, datozen asteetan errepresioaren aurkako kanpainari ekingo diogu berriro. Beste behin ere, langile klasearen borrokak zuen elkartasuna eta inplikazioa beharko ditu.

Gora langileon borroka!

Bilboko Langile Autodefentsa Sarea

[Castellano]

Ante la presentación de Langile Autodefentsa Sarea Bilbo de Kontseilu Sozialista.

El trabajo de Bilboko Langile Autodefentsa Sarea (LAS) comienza en 2019 con intención de fomentar la auto-organización de clase. Nuestro objetivo es aportar hacia la creación de un movimiento y una organización efectivas de la clase trabajadora. Nuestra actividad práctica concreta está centrada en el trabajo asalariado, intentando desarrollar de esta manera un antagonismo y una unidad de clase reales ante las instituciones burguesas y el sistema capitalista en su conjunto.

Somos una organización en la que las trabajadoras lideran sus propias luchas, colectivizando la respuesta ante la explotación y haciendo que las victorias conseguidas sean de toda la clase en su conjunto. Desde que empezó nuestro recorrido hemos llevado a cabo diferentes conflictos laborales y conseguido victorias significativas. Con nuestro trabajo, hemos ido ganando referencialidad y la implicación y solidaridad que hemos recibido desde el principio han enriquecido nuestra actividad.

En medio de una coyuntura política complicada a nivel de Euskal Herria, en el que la desmovilización y la atomización organizativa es general, la experiencia de LAS ha demostrado que la organización entre trabajadoras con diferentes posicionamientos políticos es posible y necesaria, siempre que sea desde una base revolucionaria. Aunque hay que señalar que el acuerdo y el equilibrio nunca han sido sencillos.

En los últimos meses y debido a las diferencias a la hora de visualizar la estrategia del

grupo se decidió debatir sobre el planteamiento estratégico. Durante los debates se presentaron diferentes propuestas y planteamientos, entre ellos el de entrar en Kontseilu Sozialista. La asamblea decidió rechazar la propuesta (sin cerrar la puerta a posibles futuras colaboraciones, como ha venido desarrollando en su trabajo en relación a diferentes colectivos y grupos) para poder seguir desarrollando el trabajo, y los objetivos de LAS. Tras tomar esta decisión las compañeras de Kontseilu Sozialista decidieron dejar Langile Autodefentsa Sarea, trasladando a la asamblea su intención de crear una nueva red de autodefensa laboral.

Desde hace meses, nos encontramos en medio de un bloqueo político causado por la represión iniciada el año pasado. Donde la policía española detuvo a siete de nuestras compañeras y ex-compañeras. Por el momento, cada una de ellas afronta una petición fiscal de 2 años y 9 meses de cárcel además de una multa total de 82.000E. Entre las encausadas también se encuentra la trabajadora que llevó adelante el conflicto, cuya condición de mujer migrada hacen que las consecuencias de la represión sean más graves.

En medio de todos estos impedimentos, conscientes de ellos y en consecuencia, aprovechándose de ellos, Bilboko Kontseilu Sozialista presentó la semana pasada su nueva red de autodefensa laboral; Langile Autodefentsa Sarea Bilbo. Han utilizado el mismo nombre para crear su nuevo colectivo, entendemos que para poder eliminar el trabajo y la referencialidad de lo que no han podido absorber y obviando las graves consecuencias que esto trae para nuestra práctica política y defensa jurídica.

El objetivo de este comunicado es informar sobre la ruptura y aclarar el origen de Langile Autodefentsa Sarea Bilbo de Kontseilu Sozialista, así como las consecuencias que esto conlleva. No queriendo entrar en discusiones que solo traen desconfianzas y rivalidades, y que no ayudan en el desarrollo de los objetivos políticos arriba esbozados.

Queremos dejar claro que Langile Autodenfentsa Sarea sigue y seguirá desarrollando su trabajo político manteniendo el objetivo de articular la lucha de la clase trabajadora. Además, en las próximas semanas retomaremos la campaña anti-represiva. Una vez más, la lucha de la clase trabajadora necesitará vuestra solidaridad e implicación.

Gora langileon borroka!

<https://eh.lahaine.org/ante-la-presentacion-de-langile>